

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ORIOKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2014.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den maiatzaren 26an Orioko Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena.

Txostenak ondorioztatu du Udalak **zuzentasunez bete duela** 2014ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautu duen **lege arautegia**; alabaina, hainbat ez-betetze azaleratu dira **Langileen gastuak** atalean eta **Administrazioko Kontratazioarenean**. Langileen gastuetan, izaera mugagabeko bi langile berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak beteko direla bermatuko duen prozesua bideratu gabe kontratatu dira; langileen ordainsariak 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak aurreikusitakoaren gainetik igo dira, Udalbatzak onartu gabe; eta 40 langile egiteko iraunkorrak betetzen ari dira Lanpostuen Zerrendaren derrigorrezko aldaketa izapidetu gabe, Osoko Bilkurak onetsi gabe eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikotasunik eman gabe. Administrazioko kontratazioan abian da hiri-hondakin solidoak biltzeko eta kalea garbitzeko kontratua, indarraldia 2010ean agortu zitzaiona eta 2014ko ekitaldian 315.347 euroren gastua eragin duena.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** eman du; alabaina, Udalaren Diruzaintza Geldikina 544 milioi euroan gehitzea eragiten duten hainbat doiketa azaleratu ditu. Gainera, Ibilgetu material, guztien erabilerako ibilgetu eta ibilgetu ez-materialaren kontularitzako saldoek eta Lagatako eta guztien erabilerara emandako ondarearen saldoek ez dute 2014ko abenduaren 31ko udal ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen. Bestetik, Udalaren Kontu Orokorren Oroitidazkiak ez ditu jasotzen 3 hitzarmenetatik eratorritako konpromisoak, beste hainbat erakunderi 2015 eta 2016ko urteetarako emandako 230.268 euroren diru-laguntza izendunak arautzen dituztenak.

Finantza egoerari dagokionez, Epaitegiak adierazi du diru-sarrerek gora egin izanak funtzionamendu gastuen igoera txikiagoarekin batean, hobetu egin duela autofinantzaketa maila eta 2014an aurrezki garbia sarrera arrunten gainean % 11,7koa izan dela. Azpimarratu behar da, gainera, zorpetzerik ez dagoela eta Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina esanguratsua dela, 5,8 milioi euroena alegia.

Amaitzeko, txostenak ondorioztatu du Udalak 2014an **aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren** helburuak eta **gastuaren araua** bete dituela.